



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzak 31

Vitoria-Gasteiz, 31 de mayo de 2022

Lana eta Enplegua

LANBIDEK EUROPAKO FUNTSETATIK 3,6 MILIOI BIDERATZEN DITU 12 TOKI-ERAKUNDETARA, BGDAREN ETA DSBEAREN HARTZAILEAK GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO PROGRAMETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 3,5 milioi euro ematea Europako funtsetatik Euskal Autonomia Erkidegoko 12 toki-erakunderi, gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak abian jar ditzaten. Proiektu horietan, 186 pertsonak parte hartu ahal izango dute, baldin eta BGD eta/edo DSBE jasotzen badute. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak koordinatuko du haren gauzatzea.

Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, 3,6 milioi euro ematea onartu da, hamabi toki-erakunderen artean banatzeko, enpleguko eta prestakuntzako hamahiru proiektu pilotu abian jartzeko, iraupen luzeko 186 langabementzat eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara edota Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenentzat. Erakunde esleipendunak Gasteizko, Zumarragako, Irungo, Sestaoko, Santurtziko, Bilboko, Amurrioko, Ermuko, Leioako, Urduñako eta Muskizko udalak eta Enkarterriko Mankomunitatea dira.

Hautatutako hamabi erakunde horiek aurkeztu dituzte proposamenak, garatuko diren ingurunearen beharrei erantzuteko. Zehazki, honako hauei buruzkoak dira: egoera ahulenean dauden udalerrri edo auzoetako etxebizitzak eta landa-ingurunea hobetzeko eta birgaitzeko jarduerak, hirugarren eta laugarren adinekoei laguntzea eta arreta ematea, egoera ahulean dauden taldeei, desgaitasun fisiko edo psikikoagatik mendekotasuna duten pertsonen edo gaixotasun kronikoa dutenei zaintza eta laguntza ematea, kultura, hezkuntza eta osasuna sustatzea, ondare artistikoa eta historikoa sustatzea eta berreskuratzea, birziklatzea eta baliabideak berrerabiltzea, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak desagerraraztea.

Proiektuak enplegu- eta prestakuntza-jarduera mistoak dira, eta bi fase dituzte. Lehenengoak bi hilabeteko iraupena izango du, eta bigarrenak hamar hilabetekoa. Era berean, orientazio- eta laguntza-jarduera pertsonalizatuak aurreikusten ditu. Prestakuntzan parte hartzen duten pertsonen DSBE edo BGD jasotzen jarraitu ahal izango dute, dagozkien baldintzetan, diru-sarrerara gisa zenbatzen ez direlako. Bestalde, kontratazioan zehar, DSBE prestazioa ez da etengo; aitzitik, prestazioen zenbatekoa diru-sarrerara berrietara egokituko da, kasuan kasuko enplegurako pizgarriak aplikatzen direlako. Proiektuak aurtengo uztailaren 1a baino lehen hasi beharko dira.

Diru-laguntza horien helburua da epe luzeko langabezia-intzidentzia handia duten euskal udalerrri eta eskualdeetan pertsona horiek gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak egiteko garatu beharreko jarduerak diruz laguntzea. Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berrien 23.

osagaiaren barruan dago, eta Europar Batasunak finantzaturako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan Nazionalean jasota dago.

Hori gauzatzeko, Lanbidek toki-erakundeen parte-hartzea sustatu du, eta aipaturako laguntzak jasotzen dituzten iraupen luzeko langabetu asko dituzten eremu geografikoetako erakundeei zuzendu zaie.

Lana eta Enplegua

LANBIDEK 280.000 EURO BIDERATUKO DITU 400 LANGABERI KONPETENTZIA DIGIALETAN PRESTAKUNTZA EMATEKO

Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur onartu du Talentu Digitala Sustatzeko VASS Fundazioari dirulaguntza zuzen bat ematea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden 400 langaberi konpetentzia digital aurreratuetan prestakuntza emateko, arlo teknologikoetako lanpostuak eskuratzeko aukera izan dezaten.

Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, erakunde horri 280.000 euro ematea onartu da. Erakunde horren helburu nagusia talentu digitala babestea eta bultzatzea da, eta, horretarako, "Developers from Euskadi" sustatu du, konpetentzia digital aurreratuaren kualifikaziorako prestakuntza garatzera bideratutako enplegurako prestakuntza-proiektu esperimental gisa.

Lanbideren bidez, 400 langabe edo lan-egoera ahulean dauden pertsona hautatuko dira, "Programazioaren oinarriak" prestakuntza-programa egiteko. Hirurogei orduko iraupena izango du, eta parte hartzen dutenek gai horretan hastea nahi du. Ez da beharrezkoa alde aurreko ezagutza teknikoak izatea. Prestakuntza-aldi horren ondoren, hura gainditzen duten lehen 100 pertsonak 600 orduko bigarren fasera igaroko dira, 'Full Stack Development' izenekoa, eta horrek programatzaile profesionalaren zereginak betetzeko gaituko ditu, bai web-diseinuaren esparruan, bai aplikazioen eta datu-baseen programazioan eta kudeaketan. Bi programak on-line emango dira, tutore elebidunekin, eta parte-hartzaile bakoitzak aukeratuko du zein hizkuntzatan egin nahi duen.

Ekimen horrek 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategian jasotako helburuetako bati erantzuten dio, produkzio-sistemara egokitzen den enplegu erresilientea, eta, pertsonen ezagutza lurralde baten lehiakortasun-aktibo handia dela abiapuntutzat hartuta, ezartzen du enpleguaren euskal politikak modu integralean indartu beharko duela talentuaren aldeko apustua, prestakuntza-dimentsioa areagotuz eta optimizatuz.

Proiektua 2022ko ekainaren 1etik 2023ko azaroaren 15era bitartean gauzatu beharko da.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

EUSKAL KULTURA ONDAREARI BURUZKO LEGEA ALDATZEKO PROPOSAMENA ERREFUSATU DU GOBERNU KONTSEILUAK

- **EH Bilduk planteatutako Lege Proposamena aintzat hartzearen aurka dagoela adierazi du**

Gobernu Kontseiluak ez du begi onez ikusten Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen aldaketa, batik bat EH Bildu legebiltzar taldeak proposatzen duen lege proposamenean planteatutako gaiak dagoeneko araututa eta jasota daudelako indarrean dagoen legean eta lege horren garapenean. Horregatik, lege proposamena aintzat hartzearen aurka dagoela adierazi du Jaurlearitzak gaurko bileran.

Metal-detektagailuen erregulazio espezifikoari dagokionez, Eusko Jaurlearitzak dio indarrean dagoen legeak, 64. artikuluan, prospekzio geofisikoa aipatzen duela, eta prospekzio horren barruan metal-detektagailuak jarduera arkeologiko gisa erabiltzea dagoela.

Beste artikulua batek, 66. artikulua, ezartzen du prospekzio arkeologikoko jarduera horiek kasuan kasuko foru aldundiko kultura-ondarearen zerbitzuaren onspena izan behar dutela. Beraz, jarduera bera, hau da, materialak bilatzeko lurra mugitzea, araututa dago jadanik.

Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeak debekatu egiten du Euskadiko aztarnategi arkeologiko batean lurra mugiaraztea, salbu eta dagokion foru aldundiko kultura-ondarearen zerbitzuak onartutako arkeologia proiekturik badago eta dagokion baimena badu. Legearen 84. artikulua arau-hauste oso larritzat jotzen ditu bai ustekabeko aurkikuntzak ez jakinaraztea, bai materialak Araba, Bizkai edo Gipuzkoako gordailu zentroan ez entregatzea.

Oro har, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeak euskal administrazio publikoen hiru mailetakoko bakoitzari kultura-ondarearen arloan dagozkion jarduerak zehazten ditu, eta halaber horien koordinazioa bermatzeaz arduratuko den organoa sortzen du. EAEko euskal kultura-ondarearen araubide juridikoa ezartzea da lege honen xedea, ondare horren babesa, kontserbazioa eta balioa ematea bermatzeko, bai eta ondare hori pertsona guztiek ezagutu, ikertu, zabaldu eta gozatu ahal izateko ere.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 350.000 EURO BIDERATUKO DITU IKASLEEN GURASO ELKARTEEN FEDERAZIO ETA KONFEDERAZIOEN DIRULAGUNTZATARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, unibertsitatez besteko ikasleen guraso elkarten Federazio eta Konfederazioentzako dirulaguntzatarako deia egiten duen Agindua. Deialdi honek 350.000 euroko diru kopurua du orotara.

Laguntzak Federazio eta Konfederazioek beharrezko dituzten azpiegitura gastuei aurre egiteko emango dira, elkarten laguntza eta aholkularitza gastuei aurre egiteko, gurasoen formakuntza jarduerak eragindako gastuei aurre egiteko, edo ikasleei zuzendurik elkarte horiek antolaturiko eskolaz kanpoko jardueretarako.

Formazio-jarduerari dagokienez, Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planaren ildo estrategikoei lotutako prestakuntza sustatzen du deialdi honen bidez Hezkuntza Sailak, eta, bereziki, honako ildo hauek: hezkuntza-komunitatearen prestakuntza; hezkuntza inklusiboa eta aniztasunarekiko arreta; elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren esparruan; material didaktikoak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak.

Ekintza hauek guztiek 2022an burutuak izan beharko dute. Gehienez jardueraren kostuaren %50 ordaindu ahal izango da laguntza hauen bidez.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

ETXEBIZITZA SAILAK 71,6 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU ALOKAIRUA ETA BIRGAITZEA BABESTEKO PROGRAMETARA

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako Sailak guztira 71.663.253 euro bideratuko ditu alokairu sozialerako eta etxebizitzak birgaitzeko laguntza-programak finantzatzera. Hala jasotzen da Gobernu Kontseiluari jakinarazi zaion Iñaki Arriola sailburuaren Aginduan. Agindu horren bidez, argitara ematen dira etxebizitzaren eta eraikinen alokairua eta birgaitzea sustatzeko 2022ko ekitaldi honetan emango diren urte anitzeko dirulaguntzen lerroak finantzatzeko dituzten ordainketa- eta konpromiso-kredituak.

Gobernu Kontseiluaren bilera, programa horien aurrekontu-estaldurarako baimena ere eman da. Hona hemen programak:

- Dirulaguntzetan 38 milioi euro esleitu dira egiturazko berrikuntzen (estalkiak eta fatxadak), irisgarritasunaren (igogailuak instalatzea, batez ere) eta energia-efizientziaren bidez bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzea bultzatzeko. Horietatik 9 milioi ekitaldi honetan sortuko dira, eta 2022an bertan 24 milioiko gastuak konprometituko dira 2023rako eta 2,9 eta 2 milioikoak hurrengo bi urteetarako, hurrenez hurren. Zenbatetsi da 250 milioi eurotik gorako inbertsio pribatuak mobilizatuko direla (jabeen komunitateen kontura, batez ere) aipatutako dirulaguntzen bidez.
- Errentamendu babestua sustatzera 19 milioi euro bideratuko dira guztira: 1,7 milioi ekitaldi honetan sortuko dira, eta 2022an bertan 5,5 milioiko gastuak konprometituko dira 2023rako, eta 11,8 milioikoak 2024rako. Funtsean, sustapen berriko operazioak sustatzeko edo aurretik zeuden etxebizitzak birgaitzeko erabiliko dira, aldeztatik eskuratu ondoren, sustatzaile publiko eta pribatuek alokairu sozialeko eta eskuragarriko etxebizitzetarako, baita zuzkidura-bizitokiak (AZBak) sustatzeko, gizarte-ekimenaren bidez cohousing-a edo etxebizitza kolaboratiboak sustatzeko, Alokairu programa sustatzeko (lankidetzaren publiko-pribatuko mekanismo berria, zeinaren arabera Jaurlaritzari eraikin pribatuak epe luzera lagatzen baitzaizkie inbertsore instituzionalentzako errenta ziurtatuen bidez) eta eremu hustuetan alokairurako jarduketak sustatzeko ere.
- Guztira 14,1 milioi esleitu dira hurrengo 20 urteetan (gehi gabealdia) finantza-erakundeek sustatzaile publiko eta pribatuei, etxe eta jabeen komunitateei, irabazi-asmorik gabeko elkarteei eta erabilera-lagapeneko kooperatibei ematen dizkieten kredituen interes-puntuak subsidiatzeko, alokairu babestuko etxebizitzak eta birgaitze integrala sustatzeko (irisgarritasuna, energia-efizientzia, digitalizazioa, eraikinen azterketa teknikoaren ondoriozko obrak eta etxebizitza hutsen mobilizazioa, aurretiazko birgaitzeren eta/edo eraberritzearen bidez), Jaurlaritzak EAEn diharduten kreditu-erakundeekin dituen finantza-hitzarmenen bitartez.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK BILBOKO LEHENGO SANEAMENDU-SAREA, MONUMENTU-MULTZO IZENDAPENAZ, BABES BEREZIKO KULTURA-ONDASUN IZENDATU DU

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Bilboko lehenengo saneamendu-sarea, Monumentu-Multzo kategoriarekin, Babes Berezikoko Kultura-Ondasun deklaratzeko dekretua. Sare hori Bilbon eta Getxon dago.

Bilboko Saneamendu Sarearen aitzinako instalazioa 1.900. urte inguruan eraiki zen, eta alderdi askotan berritzailea izan zen; urak bereizten zituen estatuko lehen sarea izan zen, ingenio teknikoak barne hartu zituen, besteak beste dorre piezometriko batez hornitutako ponpaketa-estazio indartsu bat, edo Europako kontinentean lehen aldiz arazketa bakteriologikoko sistema bat erabili zuen. Sare babestuaren barruan sartzen dira Elorrieta-Zorrotzaurren (Bilbo) dagoen ponpaketa-estazioa eta ur beltzen sarearen azken zatiko edo Galeako tuneleko zenbait elementu nabarmen, ponpaketa-estaziotik 10 km-ra dagoena, Getxoko udalerrian.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren iritziz, hauek dira monumentu-multzo honen babesa justifikatzen duten funtsezko balioak:

- Instalazioaren balio teknologikoa eta historikoa.
- Ondasun higiezinaren eraikuntza-kalitatea eta kalitate estetikoa.
- Espazioak sortzeko irizpide funtzionalak eta higienistak.
- Makineriaren berezitasuna.

Babestutako Monumentu Multzoa Bilbo eta Getxo artean jarraian ez dauden zazpi eremuek osatzen dute, hasiera batean sare jarraitu bat osatuz elkartuta zeudenak. Lehenengo eremua Elorrieta-Zorrotzaurreko ponpaketa-estazioa da, eta Bilboko San Inazio auzoko Carmelo Larrea lorategiek hartzen duten eremuarekin bat egiten du. Bigarrena, hirugarrena, laugarrena, bosgarrena eta seigarrena bat datoz Getxoko bost malakateen (Galeako Tunelaren aireztapen eta erregistro putzu bertikalak dituzten eraikuntza txikiak) kanpoko lerrokadurekin. Zazpigarren eremua Galeako labarretan dago, eta Tunelboca izeneko eraikuntza eta hustubide-karkaba ditu, biak Getxoko Tunelboca hondartzan.

Hemendik aurrera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Bilboko Aitzinako Saneamendu Sarearen Monumentu Multzoa inskribatuko du Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan. Era berean, dekretuaren onarpenaren berri emango die Bilboko eta Getxoko udalei, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, Metro Bilbaori, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Euskal Herriko Itsasertz Mugapeari, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eta Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko Sailari, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari eta Industria Ondarearen eta Obra Publikoaren Euskal Elkarteari.

Trabajo y Empleo

LANBIDE DESTINA 3,6 MILLONES DE FONDOS EUROPEOS A 12 ENTIDADES LOCALES PARA PROGRAMAS DE INCLUSIÓN SOCIO-LABORAL DE PERCEPTORES DE IMV Y RGI

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy conceder 3,5 millones de euros procedentes de fondos europeos a 12 entidades locales de la Comunidad Autónoma Vasca para la puesta en marcha de proyectos de inclusión socio-laboral en los que podrán participar 186 personas perceptoras de IMV y/o RGI. El Servicio Vasco de Empleo –Lanbide coordinará su ejecución.

A propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, se ha aprobado la concesión de 3,6 millones de euros a repartir entre doce entidades locales para la puesta en marcha de trece proyectos piloto de empleo y formación destinados a 186 participantes desempleados de larga duración y perceptores del Ingreso Mínimo Vital y/o Renta de Garantía de Ingresos. Las entidades adjudicatarias son los ayuntamientos de Vitoria-Gasteiz, Zumarraga, Irún, Sestao, Santurtzi, Bilbao, Amurrio, Ermua, Leioa, Orduña y Muskiz, así como la Mancomunidad de Encartaciones.

Estas doce entidades seleccionadas son las que han presentado propuestas que responden a las necesidades del entorno en el que van desarrollarse. En concreto, están referidas a actuaciones de mejora y rehabilitación de las viviendas y del entorno rural en los municipios o barrios más desfavorecidos, el acompañamiento y atención a la tercera y cuarta edad, el cuidado y ayuda a grupos desfavorecidos, personas dependientes por discapacidad física o psíquica o en situación de enfermedad crónica, la promoción de la cultura, la educación y la salud, la promoción y recuperación del patrimonio artístico e histórico, el reciclaje y la reutilización de recursos, la eficiencia energética y energías renovables o la eliminación de la brecha digital.

Los proyectos consisten en actuaciones mixtas de empleo-formación que constan de dos fases. Una primera de formación con una duración de dos meses y una segunda de contratación de diez meses que contempla, asimismo, actividades de orientación y acompañamiento personalizado. Durante la formación las personas participantes podrán seguir percibiendo la RGI o el IMV en las condiciones que les correspondan porque no computan como ingresos. Por su parte, durante la de contratación la percepción de RGI no se suspenderá, sino que se adecuará la cuantía de las prestaciones a sus nuevos ingresos porque se aplican los estímulos al empleo correspondientes. Los proyectos deberán iniciarse antes del 1 de julio de este año.

El objetivo de estas subvenciones es apoyar económicamente las actuaciones a desarrollar para realizar itinerarios de inserción socio-laboral de estas personas en municipios y comarcas vascas con alta incidencia de desempleo de larga duración. Se enmarca en el Componente 23 ‘Nuevas políticas públicas

para un mercado de trabajo dinámico, resiliente e inclusivo' incluido en el Plan Nacional de Recuperación, Transformación y Resiliencia financiado por la Unión Europea.

Para su ejecución, Lanbide ha promovido la participación de entidades locales, dirigiéndose a aquellas pertenecientes a ámbitos geográficos con alto número de personas desempleadas de larga duración y perceptoras de las ayudas citadas.

Trabajo y Empleo

LANBIDE DESTINA 280.000 EUROS PARA FORMAR A 400 PERSONAS DESEMPLEADAS EN COMPETENCIAS DIGITALES

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy conceder una subvención directa a la Fundación VASS para el Fomento del Talento Digital para formar en competencias digitales avanzadas a 400 personas desempleadas e inscritas en el Servicio Público Vasco de Empleo Lanbide con el objetivo de que puedan optar a puestos de trabajo en áreas tecnológicas.

A propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, se ha aprobado la concesión de 280.000 euros a esta entidad cuyo objetivo principal es apoyar e impulsar el talento digital, y que ha promovido 'Developers from Euskadi' como un proyecto experimental de formación para el empleo dirigido al desarrollo de formación para la cualificación en competencias digitales avanzadas.

A través de Lanbide se va a seleccionar a 400 personas desempleadas o en situación de vulnerabilidad laboral para la realización del programa formativo 'Fundamentos de programación'. Tendrá una duración de sesenta horas, y pretende iniciar a los participantes en esta materia. No es necesario que tengan conocimientos técnicos previos. Tras este periodo de formación, las primeras 100 personas que lo superen pasarán a una segunda fase denominada 'Full Stack Development' de 600 horas y que les habilitará para desempeñar tareas de programador profesional tanto en el ámbito del diseño web como la programación y gestión de aplicaciones y bases de datos. Ambos programas serán impartidos en la modalidad on-line con tutores bilingües, siendo a elección de cada participante el idioma en el que desee realizarlo.

Esta iniciativa responde a uno de los objetivos incluidos en la Estrategia Vasca de Empleo 2030, un empleo resiliente que se adapta al sistema productivo que, partiendo de la premisa de que el conocimiento de las personas es el gran activo de competitividad de un territorio, establece que la política vasca de empleo deberá reforzar de forma integral su apuesta por el talento, intensificando y optimizando su dimensión formativa.

El proyecto deberá ejecutarse entre el 1 de junio de 2022 y el 15 de noviembre de 2023.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL CONSEJO DE GOBIERNO SE OPONE A LA PROPOSICIÓN DE MODIFICACIÓN DE LA LEY DE PATRIMONIO CULTURAL VASCO

- **Manifiesta su criterio desfavorable a la toma en consideración de la Proposición de Ley planteada por EH Bildu**

El Consejo de Gobierno se opone a la modificación de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco porque las cuestiones planteadas en la proposición de ley que propone el grupo parlamentario EH Bildu ya están reguladas y contempladas en la norma en vigor y en su desarrollo. Por ello, en su reunión de hoy, el Gobierno ha acordado manifestar su criterio desfavorable a la toma en consideración de la proposición de ley.

En relación a la regulación específica de los detectores de metales, el Gobierno Vasco sostiene que la ley vigente, en su artículo 64, hace referencia a la prospección geofísica, dentro de la cual se encuentra el uso de detectores de metales como una actividad arqueológica más.

Otro artículo, el 66, establece que este tipo de actividades de prospección arqueológica deben contar con la aprobación del servicio de patrimonio cultural de la diputación foral correspondiente. Por tanto, la actividad en sí, es decir, la remoción del terreno en busca de materiales, ya está regulada.

La actividad de remoción de tierras en un yacimiento arqueológico en Euskadi está prohibida por la Ley de Patrimonio Cultural Vasco, salvo que se cuente con un proyecto arqueológico aprobado por el servicio de patrimonio cultural de la diputación foral correspondiente y se cuente con el consiguiente permiso. El artículo 84 de la ley califica como infracciones muy graves tanto el incumplimiento de la comunicación de los hallazgos casuales, como el incumplimiento del depósito de los materiales en el correspondiente Centro de depósito de Araba, Bizkaia o Gipuzkoa.

Con carácter general, la Ley de Patrimonio Cultural Vasco especifica las actuaciones que en materia de patrimonio cultural corresponden a cada uno de los tres niveles de las administraciones públicas vascas y crea el órgano encargado de garantizar la coordinación de las mismas. La presente ley tiene por objeto establecer el régimen jurídico del patrimonio cultural vasco de la CAPV, con el fin de garantizar su protección, conservación y puesta en valor, así como de posibilitar su conocimiento, investigación, difusión y disfrute por todas las personas.

Educación

EDUCACIÓN DESTINA 350.000 EUROS PARA AYUDAS A FEDERACIONES Y CONFEDERACIONES DE ASOCIACIONES DE PADRES Y MADRES DEL ALUMNADO

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas destinadas a las Federaciones y Confederaciones de entidades asociativas de padres y madres del alumnado de enseñanza no universitaria. Esta convocatoria de subvenciones cuenta con un importe de 350.000 euros.

Las ayudas se concederán para gastos de infraestructura necesarios para el funcionamiento de las Federaciones y Confederaciones, para gastos de actividades de apoyo y asesoramiento a las entidades asociativas, para gastos de actividades de formación de padres y madres, o para gastos de actividades complementarias y extraescolares organizadas por éstos y dirigidas al alumnado.

En relación a las actividades de formación, a través de esta convocatoria el Departamento de Educación promueve la formación vinculada a las líneas estratégicas del Plan de Mejora del Sistema Educativo, y en especial las siguientes líneas: Formación de la comunidad educadora; Educación inclusiva y atención a la diversidad; Bilingüismo en el marco de una educación plurilingüe; Materiales didácticos y Tecnologías de la Información y la Comunicación.

Todas las actividades subvencionables serán realizadas durante el año 2022. Como máximo, se sufragará mediante estas subvenciones el 50% del coste de las citadas actividades.

Planificación Territorial, Vivienda y Transportes

VIVIENDA DESTINA 71,6 MILLONES DE EUROS A PROGRAMAS DE APOYO AL ALQUILER Y LA REHABILITACIÓN

El Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes destinará un total de 71.663.253 euros a financiar programas de ayudas al alquiler social y a la rehabilitación de viviendas. Así se recoge en la Orden del consejero Iñaki Arriola puesta en conocimiento al Consejo de Gobierno, por la que se da publicidad a los créditos de pago y compromiso que financiarán las líneas de subvenciones plurianuales que se concederán en el presente ejercicio 2022 en fomento al alquiler y rehabilitación de viviendas y edificios.

En la sesión del Consejo de Gobierno se ha dado también autorización a la cobertura presupuestaria de estos programas, que son los siguientes:

- Para el impulso de la rehabilitación de edificios residenciales y viviendas mediante reformas estructurales (cubiertas y fachadas), accesibilidad (instalación ascensores, fundamentalmente) y eficiencia energética se asignan 38 millones de euros en subvenciones. De ellos, 9 millones se devengarán en el presente ejercicio, y en el mismo 2022 se comprometerán gastos por 24 millones para 2023 y para los siguientes dos años 2,9 y 2 millones, respectivamente. Se estima en más de 250 millones de euros las inversiones privadas (básicamente por cuenta de las comunidades de personas propietarias) que se movilizarán con las citadas subvenciones.
- A la promoción del arrendamiento protegido se destinarán un total de 19 millones de euros: 1,7 millones se devengarán en el presente ejercicio, y en el mismo 2022 se comprometerán gastos por 5,5 millones para 2023 y 11,8 millones para 2024. Fundamentalmente, se emplearán en el fomento de operaciones de nueva promoción o mediante rehabilitación de viviendas preexistentes previa su adquisición, de viviendas en alquiler social y asequible por parte de promotores públicos y privados, así como a la promoción de alojamientos dotaciones (ADA), el fomento del cohousing o viviendas colaborativas por parte de la iniciativa social, el programa Alokairu (nuevo mecanismo de colaboración público-privada, en virtud del cual se ceden a largo plazo edificios privados al Gobierno a cambio de rentas aseguradas a los inversores institucionales) y el fomento de actuaciones en alquiler en zonas despobladas.
- Un total de 14,1 millones se asignan para subsidiar durante los próximos 20 años (más periodo de carencia) los puntos de interés de los créditos que concedan las entidades financieras a promotores públicos y privados, a hogares y comunidades de personas propietarias, y a asociaciones sin ánimo de lucro y cooperativas en cesión de uso, para la promoción de viviendas de alquiler protegido y rehabilitación integral (accesibilidad, eficiencia energética, digitalización, obras derivadas de ITE, y movilización vivienda deshabitada mediante rehabilitación y/o reforma previa) a través de los Convenios Financieros del Gobierno con las entidades de crédito operantes en Euskadi.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO DECLARA COMO BIEN CULTURAL DE PROTECCIÓN ESPECIAL, CON CATEGORÍA DE CONJUNTO MONUMENTAL, LA ANTIGUA RED DE SANEAMIENTO DE BILBAO

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el decreto por el que se declara como Bien Cultural de Protección Especial, con categoría de Conjunto Monumental, la Antigua Red de Saneamiento de Bilbao, que se encuentra en Bilbao y en Getxo.

La antigua instalación de la Red de Saneamiento de Bilbao, fue construida en torno a 1900, y fue innovadora en muchos aspectos; ser la primera red separativa del estado, incluir ingenios técnicos, como una potente estación de bombeo equipada con una torre piezométrica, o utilizar, por primera vez en el continente europeo, un sistema de depuración bacteriológico. La red protegida incluye la estación de bombeo, situada en Elorrieta-Zorrotzaurre (Bilbao), y algunos elementos destacados del tramo final de la red de fecales o Túnel de la Galea, situado a 10 km de la estación bombeadora en el municipio de Getxo.

El Departamento de Cultura y Política Lingüística ha considerado que los valores esenciales que justifican la protección de este Conjunto Monumental son los siguientes:

- El valor tecnológico e histórico de la instalación.
- La calidad constructiva y estética de los bienes inmuebles.
- Los criterios funcionales e higienistas en la concepción de los espacios.
- La singularidad de la maquinaria.

El Conjunto Monumental protegido está formado por siete ámbitos discontinuos entre Bilbao y Getxo, que en origen estaban unidos configurando una red continua. El primer ámbito corresponde a la estación bombeadora de Elorrieta-Zorrotzaurre y coincide con el ámbito ocupado por los jardines Carmelo Larrea en el barrio de San Ignacio de Bilbao. El segundo, tercero, cuarto, quinto y sexto, coinciden con las alineaciones exteriores de los cinco malacates (pequeñas construcciones que albergan los pozos verticales de ventilación y registro del Túnel de la Galea) ubicados en el municipio de Getxo. El séptimo ámbito se encuentra en los acantilados de la Galea, y consta de la construcción denominada Tunelboca y su cárcava de desagüe, situados ambos en la playa de Tunelboca de Getxo.

A partir de ahora el departamento de Cultura y Política Lingüística inscribirá el Conjunto Monumental de la Antigua Red de Saneamiento de Bilbao en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco. Asimismo también informará de la aprobación del decreto a los ayuntamientos de Bilbao y Getxo, al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, a Metro Bilbao, a la Demarcación de Costas del País Vasco del Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico, a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deporte, y de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno

Vasco y a la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y de la Obra Pública (AVPIOP).